

Asisko gutuna

2014ko Urria. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

72. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

“Jauna dut argi eta salbamen, nork ni beldurtu? Jauna biziaren babes, nork ni izutu?” Salmoen liburuko otoitz honek gure bihotza oinarritzen laguntzen digu, bere lekuan kokatzen. Baina zeinen erraz galtzen garen gure beldurren sasi artean.

Horregatik, gure espiritualtasunean behin eta berriz bizia, konfiantza, sendotasuna ematen dizkigun iturrira jo beharrean aurkitzen gara. Gure beldurrak uxatu eta senidetasuna eraikitzen lagunduko digun iturrira.

Gogoetarako gaia

Gure beldurrak

“Nor da beldur?” diote ipuinetako heroi bular-tsuek ... Hala ere, beldurrek inguraturik gabiltza maiz, eta geure baitan gordearazten gaituzte eta besteekiko harremanetan blokeatzen. Beldur gara, batzuetan, garen bezalakoak agertzeko, besteei gustu ez emateko eta arbuiatuak eta ez-ulertuak izateko; behin baino gehiagotan kasu gehiegi egiten diogu geure axaleko irudiari, onartuak izateko eskabide ezinezkoak bete behar bagenitu bezala.

Beldur horiek zaildu egiten digute senide gisa bizitzea egunean eguneko senitaratean. Lotu egiten gaituzte eta ez digute pausoak ematen uzten besteekin aurkitze-bidean. Behin baino gehiagotan geuregan eta besteengan dugun konfiantza-falta ispiilatzen dute. Baina beste batzuetan gauza serio eta sakona dira: beldurrek lotu egiten gaituzte trabaz, katramilatu, isolatu. Zauri sakonetatik datoz, eta haietatik ibiliz besteak zauritzen ditugu. Batzuetan ez gara gu beldurra daukagunak, beldurra da “gu gauzkana”.

Hori horrela aitortzea urrats bat da egiantz: egin dezakeguna da beldurraren erditik pasatzea, bertan planto egin gabe; laguntza beharrean garela aitortzea eta atera gaitzatela eskatzea; bidean lagun ditugunei eskertzea. Beldurrak berekin du bakardadea. Beldurraren kontra, konfiantza. Konfiantzak harremana du berekin eta hori soilik konfiantza izanez ikasten da: beharrezko diren urratsak emanez, geure burua ezagutzeko eta “beldurtizat” onartzeko, ditugun alde on eta txarretan (nartzisismoa, perfektu izan nahia) geure burua maitatzeko, besteengana hurbiltzeko.

Jainkoak kontuan du gure beldurra; baina ez gaitu bertan uzten: Jesusek sarritan esaten du “ez izan beldur”. Haz dezakegu geure konfiantza, Jainkoarekiko harremana prozesuan jarritz. Hark garen bezalakoxeak ezagun eta maite gaitu, eta pertsonak jartzen dizkigu bizitzako bidean, haiekin anaiartea sor dezagun, haien aurpegietan Hura presente eginez.

Ebanjelioko pasartea: Mt 10,16-31

«Jesusek esan zien bere ikasleei: “Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo. Kontuz jendearekin! Auzitegi eta sinagogetara eramango zaituztete eta zigortu egingo; agintari eta erregeen aurrera eramango zaituztete niregatik, eta aitorten egingo duzue haien eta jentilen aurrean. Eramango zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan... ; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez. Ez izan jendearen beldur!. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia hondatu ezin dutenei...; ez ote dira bi txori sos batean saltzen? Hala ere, ez da bat bakarria ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe... Ez izan, bada, beldur: zuek txori guztiek baino gehiago balio duzue”».

Frantziskotar espiritualtasuna

«Zituen sei anaiak beregana bilduz esan zien: “Anaiak maite-maiteok..., goazen munduan barrena eta, hitzez eta etsenpluz, aholku eman eta irakats diezaiegun gizon-emakumeei. Eta gaineratu zuen: «*Ez izan beldur, ene artaldetxo hori, baizik eta jarri Jaunarengan zeuen konfiantza... Jaunak berak emango dizue Espiritua eta jakinduria, gizon-emakumeei aholku emateko eta bere aginduen bidea eta egintzak predikatzeko... Jende leiala, otzana, apala eta bihotz onekoa aurkituko duzue... ; eta jende fedegabea, harroa eta biraolaria ere bai, zuei eta zuen esanei irainez aurre egingo diena*”. Hitz hauek entzutean, izua sartu zitzairen. Baina Frantzisko dohatsuak, haien beldurra sumatuz, esan zien: “Ez izutu! Jakizue... Jaunak mundu guztian zehar zabaldu eta ugarituko duela bere familia”».

Frantziskok, lehen anaien izua ikusten duenean, konfiantza izatera gonbidatzen ditu: “Zuekin izango duzue Jaunaren Espiritua”. Hori da beti Jainkoak esaten diguna izutuoi: “Ez izan beldurrik; Ni zurekin izango naiz”. Jainkoaren hitz hori gogoratzen eta bizitzera etortzen bagara, elkarri bihotzez “ez izan beldurrik, Ni zuekin naiz” esanez, gainditu ahal izango dugu beldurra, konfiantza eta maitasunaren bitartez. “*Karitate santuak garaitzen ditu... giza beldur guztiak*”.

Otoitza

Pentsa ezazu Jainkoak eskutik dizula heltzen,
hainbat estuago zenbat eta lur joago
eta tristeago zauden.

Bizi zaitez pozik, arren eskatzen dizut.

Bizi bakean.

Ez zaitzala ezerk aztora. Ez ezerk bakea ken,
ez neke psikikoak,
ez hutsegite moralek.

Sorraz ezazu eta mantendu beti
zeure aurpegian
irribarre ezia,

Jaunak etengabe zuzentzen dizunaren ispilu.

Eta kemen-iturri eta egia-irizpide gisa
jar ezazu zeure arimaren barru barruan,
ezer baino lehen,

Jainkoaren bakeaz bete zaitzan oro.

Har ezazu hau gogoan: itolarrian jartzen eta
kezkatzen zaituen oro gezurrezkoa da.

Biziaren legeen izenean ziurtatzen dizut,
eta Jainkoak hitz emanaren izenean.

Horregatik, nahigabez eta triste
senti zaitezenean, adonatu eta izan konfiantza.

P. Teilhard de Chardin

Gutuneko azken hitzak

“Beldurrez betea dagoen bihotza, itxaropenez hutsa dago” (Fray Antonio de Guevara)

2014ko urriko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate urriko erreferentzia guztiak:

1 Lc 9,57-62

8 Lc 11,1-4

15 Mt 11,25-30

22 Lc 12,39-48

29 Lc 13,22-30

2 Lc 10, 1-12

9 Lc 11, 5-13

16 Lc 11,47-54

23 Lc 12,49-53

30 Lc 13,31-35

3.Lc 10, 13-16

10 Lc 11,15-26

17 Lc 12,1-7

24 Lc 12,54-59

31 Lc 14,1-6

4 Mt 11, 25-30

11 Lc 11,27-28

18 Lc 10, 1-9

25 Lc 13,1-9

5 Mt 21, 33-43

12 Mt 22,1-14

19 Mt 22,15-21

26 Mt 22,34-40

6 Mt 7, 7-11

13 Lc 11,29-32

20 Lc 12,13-21

27 Lc 13, 10-17

7 Lc 10, 38-42

14 Lc 11,37-41

21 Lc 12,35-38

28 Lc 6,12-19

Urrian elkarrekin ospatuko dugun otoitza 30ean izango da 19:30tan

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96